



Langile bat hil da Bilbon teiatu batetik erorita

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 29/05/2025

Dagoeneko lau langile hil dira aste honetan Euskal Herrian lan-istripuz.

Gaur goizean, 10:30 aldera, 61 urteko langile bat hil da Arabella auzoan eraikin bateko teiatuan mantentze-lanak egiten ari zela erorita. Bertaratu diren osasun-langileek beharginaren heriotza baino ez dute baieztatu.

Aste beltza da hau Euskal Herrian, izan ere astelehenean eta asteartean, beste hiru langile hil ziren lan-istripuen ondorioz. Astelehenean, langile bat hil zen, Atxondon, abiadura handiko trenaren obretan ari zela. Pieza bat gainera erori eta zauri larriak eragin zizkion; odolustuta hil zen. Sindikatuen arabera, 49 urte zituen. AHTko lanak egiteko azpikontratutako enpresa batentzat aritzen zen, Conprovalentzat. Astelehenean bertan jakin zen Andosillan beste behargin batek galdu zuela bizia, elikadura enpresa batean: igeltsero lanetan zebilen, eta karga gainera erori zitzaion. 50 urte zituen, eta Calahorran bizi zen (Errioxa). Azkenik, asteartean Amurrion Tubos Reunidos enpresan hildako behargina ere toki garai batetik erori zen. Azpikontratutako enpresa batentzat egiten zuen lan.

Aurten, gutxienez 24 langile hil dira Euskal Herrian.

<https://eh.lahaine.org/langile-bat-hil-da-bilbon>